

ESTATUTUAK

I. KAPITULUA.- ARAU DROKORRAK

1. artikulua.- FICOBA FUNDAZIOA izeneko pertsona juridikoa, izaera pribatu eta iraunkorrekoa, Euskadiko Fundazioei buruzko 12/94 Legeak eta hura garatzen duten arauzko xedapenek, Estatutu hauek, Patronatuak haiek interpretatzeko eta garatzeko onesten dituen arauak eta gainerako legezko xedapen aplikagarriek –besteak beste, merkataritza-jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legeak– arautuko dute.

2. artikulua.- Fundazioaren xedea eta helburua da Euskal Kostaldeko ekonomia eta kultura sustatzea.

Hori lortzeko, honako jarduera hauek egingo ditu:

- a) Merkataritza-jardunak (i.e. azokak, erakusketak, erakusketa monografikoak, ...) egin daitezen sustatzea, antolatzea edo zuzentzea Txingudi badian, hain zuzen, Gipuzkoako Erakustazokan.
- b) Azoken sektore merkadologikoarekin lotura duten ikastaroak, mintegiak, mahai-inguruak, hitzaldi-zikloak, kongresuak, sinposioak, solasaldiak eta azterketa- eta ikerketa-saioak antolatzea.
- c) Informazioko eta dibulgazioko liburuxkak, monografiak eta argitalpen-mota oro idaztea, argitaratzea, diruz laguntzea eta banatzea.
- d) Estatistika-inkestak sustatzea, diruz laguntzea edo egitea.
- e) Informazio, prentsa, irrati, telebista kanpainak eta abar antolatzea.
- f) Lehiaketak, sariak eta abar deitzea.
- g) Euskal Kostaldeko ekonomia eta kultura sustatzen laguntzen duten zerbitzuak sustatzea.
- h) FICOBA FUNDAZIOARI bere helburuak ondoen bete ditzan aukera ematen dion beste edozein bide.

3. artikulua.- Fundazioak jarduteko gaitasun osoa izango du bere helburuak betetzekoan, Kode Zibileko 38. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Honako hauek egin ahal izango ditu:

- a) Helburuak betetzeko edo xede horrekin baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
- b) Ondasun- eta eskubide-mota oro erosi edo besterendu, titulua edozein dela ere, eta mota orotako egintzak, negozioak eta kontratuak egin.
- c) Mota orotako ekintzak gauzatu, legeekin eta bere estatutuekin bat etorritz.

4. artikulua.- Euskadiko Fundazioei buruzko 12/1.994 Legeko 30. artikuluan ezarritakoa betez aplikatuko ditu Patronatuak Fundazioaren baliabideak.

Fundazioak, interes orokorreko bere helburuen barruan, objektibotasun- eta inpartzialtasun-irizpideak betez jardun beharko du bere onuradunak hautatzerakoan; ezin izango da gertatu inolako diskriminaziorik. Alde horretatik, Fundazioaren onuradun izan ahalko dira Fundazioarekin honen helburu orokorren barruan garatu eta kolaboratu nahi duten pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak nahiz pribatuak.

5. artikulua.- Fundazioak Irunen izango du helbidea (Gipuzkoa), Gabiria kaleko 2an (Zerbitzuen Eraikina).

Patronatuaren erabakiz bakarrik aldatu ahal izango da helbidea.

Fundazioak batik bat Euskal Autonomia Erkidegoan egingo ditu bere jarduerak.

6. artikulua.- Fundazioak mugagabe iraungo du, eta sortze-eskritura ematen den egunean hasiko du bere jarduna.

II. KAPITULUA.- ONDAREA

7. artikulua.- Honako hauek dira Fundazioaren ondarea osatzen dutenak:

- a) Fundazioaren ondare-zuzkidura.
- b) Entitate publiko edo pribatuetatik edo norbanakoengandik kostubidez edo dohainik eskuratzen duen beste edozein ondasun eta eskubide, bereziki dohaintzak, herentziak, legatuak, diru-laguntzak, laguntzak eta kuotak, dirutan, salgaietan, balioetan edo edozein motatako ondasunetan.

1. atala.- Ondare zuzkidura

8. artikulua.- Fundazioaren hasierako ondare-zuzkidura sortze-gutunean izaera horrekin jasotzen dena da, eta entitate sortzaileek emandako ondasun eta eskubideek eratuta dago.

Era berean, fundazioaren zuzkiduran sartuko dira Fundazioari gerora helburu espezifikoko horrekin ematen zaion beste edozein ondasun eta eskubide ere.

9. artikulua.- Fundazioak fundazioaren zuzkidura handitzeko erabili ahal izango ditu diru-sarrereren soberakinak.

2. atala.- Ondarearen araubidea

10. artikulua.-Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideek Fundazioaren izenean egon beharko dute, eta bere Inbentarioan jasota egon; eta, hala badagokio, dagozkion Erregistroetan izena emanda ere egon beharko dute.

11. artikulua.-Patronatuak egingo ditu, Fundazioaren izenean eta ordezkartzan, ondarea administratzeko eta erabiltzeko egintzak, eta eraldaketak eta aldaketak egin ahal izango ditu Fundazioaren ondasunetan, beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen baditu.

12. artikulua.-Fundazioak merkataritza- eta industri-jarduerak egin ahal izango ditu, izaera osagarritz, honela:

- a) Bere aldetik, Fundazioaren helburuekin zerikusia dutenean edo haien zerbitzura daudenean.
- b) Bazkideen erantzukizuna mugatua daukaten sozietateetan parte hartuz, baldin eta partaidetza horien titulartasunak fundazioaren helburuak hobeto betetzen laguntzen badu.

13. artikulua. Eusko Jaurlaritzak ezarritako Babesletza organoari jakinaraziko dizkio Patronatuak Fundazioaren izenean egiten diren honako egintza hauek:

- a) Herentziak, legatuak eta dohaintzak onartzea edo ez onartzea.
- b) Ondare-zuzkidura osatzen duten, edo Fundazioaren helburuak betetzera zuzenean atxikita dauden edo azken balantzearen arabera honek duen aktiboaren % 20tik gorako balioa duten ondasun eta eskubideen gaineko xedatze- edo karga-egintzak.
- c) Aurreko atalak aipatzen dituen ondasun eta eskubideak ukitzen dituzten gaiak arbitraje edo transakzio pean jartzeko erabakia.
- d) Merkataritza- edo industria-jarduerak egitea.

14. artikulua.-Ondare-zuzkiduraren kontzeptuan lortzen ez diren diru-sarrerak, eratze-unean izan edo gerora izan, honetarako erabili beharko dira:

1. Gutxienez ehuneko hirurogeita hamar, fundazioaren borondateak erabakitako helburuak betetzeko.
2. Gainerakoa, fundazioaren zuzkidura handitzeko, administrazio-gastuak kendu ondoren.

15. artikulua.- Patronatu batek ordezkatu, administratu eta gobernatuko du Fundazioa, eta legeek bakarrik mugatuko dute bere funtzioetan.

Fundazioaren helburua eraginkortasunez betetzeko zuzenbidez behar diren ahalmen eta eskumen guztien titularra da Patronatua, eta inongo mugarik gabe interpretatuko ditu Estatutu hauek.

Adierazte aldera, baina ez mugatze aldera, honako ahalmen hauek izango ditu:

- a) Fundazioa ordezkatzeko ahalmena, Aginte edo Erakunde mota ororen aurrean, edozein mailakoa delarik ere, estatukoak eta autonomiakoak; eta oro har, Fundazioa hirugarrenen aurrean ordezkatzeko ahalmena.
- b) Fundazioaren jarduera-ildo nagusiak zehazteko ahalmena.
- c) Batzorde betearazleak aurkeztuta Fundazioaren urteko jardueren plangintza eta proiektua berresteko ahalmena. Alde horretatik, dagozkion gidalerroak ezarri ahal izango ditu, eta plan horiek betetzeko irtenbideak iradoki eta arbitratu ere bai, eta baita baliabide erabilgarriak kontuan hartuta lehentasunak erabaki eta haiek betetzen direla egiaztatu ere.
- d) Memoria eta lortutako mota orotako emaitzak onesteko ahalmena, haien eraginkortasuna eta garrantzia baloratuz.
- e) Fundazioaren alde edo haren izenean eskubide, zor eta obligazioen aitortza lortzeko ahalmena, ordaintzeko edo haiek betetzeko epeak eta baldintzak finkatuz; kontuak eskatu eta emateko ahalmena, eta, halaber, mailegu edo kreditu kontzeptuan dirua jasotzekoa, kontu korrontean, balioesten dituzten bermeekin, baita hipotekarioa ere, higikorra nahiz higiezina.
- f) Abal, finantza edo bermeak eratzeko eta onartzeko ahalmena Fundazio mandatugilearen kontura eta/edo pertsona norbanakoen edo juridikoen alde, eta, halaber, erakunde publikoen aurrean.
- g) Ondasun higikor eta higiezin mota oro saltzeko, erosteko, guztizko ordainketan edo konpentsazioan emateko edo jasotzeko, lagatzeko, trukatzeko eta beste edozein modutan eskuratzeko eta besterentzeko ahalmena, interesgarrizat jotzen diren prezioak, baldintzak, epeak eta ordaintzeko moduak ezarriz.
- h) Finkak batzeko, gehitzeko, banantzeko eta zatitzeko ahalmena, zertarako eta beste berri batzuk osatzeko, alde edo aurka zortasunak eta beste edozein eskubide erreal eratzeko, obra berriaren deklarazioak egiteko eta eraikinak jabetza horizontaleko erregimenean eratzeko, erkidego-arauak eta barne-araudikoak ezarriz.

- i) Agerizko edo kredituzko kontu korrontek ireki, jarraitu eta deuseztatzeko eta dagoeneko irekita daudenen saldoak erabiltzeko ahalmena, eta diru- eta efektu-gordailutzeak eratu, deuseztatu eta endosatzea edozein Bankutan, baita Espainiako Bankuan ere, edo beste merkataritza- edo kreditu-establezimendu batean, interesekin edo interesik gabe, berme pertsonalekin edo errealekin, edo bermerik gabe. Era berean, kontu horietako eta gordailuetako funtsak ere erabilgarri izango ditu guztiz edo partzialki, ordezkagiriak, taloiak, txekak izenpetuz; eta, halaber, likidazioak egin ahal izango ditu, bermeak deuseztatu eta kendu, eta saldoei onespina eman edo ukatu.
- j) Fundazioari zor zaiona erreklamatzeko, jasotzeko eta kobratzeko ahalmena, zorraren jatorria eta izaera edozein delarik ere, eta zorduna edozein pertsona edo entitate delarik ere, baita Ogasuneko Ordezkaritzak edo Estatuko beste edozein Administrazio edo Korporazio publiko, edo Entitate Autonomiko, edo edozein sozietate, enpresa edo partikular izanda ere. Horretarako, ordezkagiriak, ordain-aginduak, txekak, ordainketa-gutunak, kitoak eta exijitzen zaizkien gainerako dokumentuak sinatu beharko ditu.
- k) Hartzekodunen konkurtsoetako ordainketa-etenduretan, eta porrotetan, eta kita- eta itzarote-prozeduretan esku hartzeko ahalmena. Era berean, hitzarmen judizialak eta judizioz kanpokoak egin ahal izango ditu zordunekin eta hartzekodunekin, eta haiek egikaritu eta bete daitezen eskatu; eta hartzekodunen batzarretara ere joan ahal izango da, eta bere botoa eman bertan.
- l) Kanbio-letrak, txekak, ordaindukoak, polizak, ordezkagiriak eta gainerako merkataritza-efektuak ordaindu, onartu, endosatu, abalatu eta negoziatzeko ahalmena, eta haien zenbatekoa ordaintzekoa eta kobratzekoa. Era berean, protestatu ahal izango du onartu edo ordaindu ez delako, eta haiek onartzea ukatu ere bai.
- m) Posta, telegrafo, telefono bidezko eta beste edozein motatako korrespondentzia jaso, ireki eta erantzuteko ahalmena, baita posta-ziurtagiriak eta deklaraturako balio-pleguak eta edozein motatako posta-igorpenak ere. Era berean, edozein bulego edo lantokitik atera ahal izango ditu Fundazioaren izenean kontsignaturako objektuak ere, beharrezko erreklamazioak eginez.
- n) Prima finkoko sozietateekin eta mutualitateekin edozein motatako aseguru-kontratuak izenpetzeko ahalmena. Gainera, judizioz edo judizioz kanpo erreklamatu eta kobratu ahal izango ditu halabeharreko kopuruak, epemuga igaroz gero edo ezbeharra gertatuz gero. Era berean, eskubide guztiak erabili ahal izango ditu polizen baldintza orokorrak eta bereziak egikaritu eta bete daitezen eskatzeko, eta bereziki, kalteak peritatzerakoan esku hartu ahal izango du, perituak izendatuz eta balio gabetuz, eta Epaitegi eskudunari hirugarren peritu bat izendatu dezan

eskatuz.

- o) Sozietate zibilak eta merkataritzakoak eta Kooperatibak eratzeko ahalmena, horretarako akzioak eta partaidetza sozialak harpidetuz, dirutan edo salgaietan ordainduz.

Estatutuak ere itundu ahal izango ditu, eta kudeaketako, administrazioko eta ordezkaritza sozialeko karguak onartu ere bai.

- p) Lehiaketa, enkante eta lizitazio publiko edo pribatuetan esku hartzeko ahalmena, horretarako transakzioak, klausula arbitralak eta zuzenbideko edo ekitateko arbitrajeak itunduz, arbitroak izendatuz eta haien laudoak onartuz edo aurkaratuz.

- q) Epaitegi eta Auzitegien eta edozein jurisdikzioren aurrean agertzeko ahalmena adostasunezko edo adostasunik gabeko adiskidetze-egintzetan, judizio zibiletan, kausa kriminaletan. Alde horretatik, kereilak sinatu ahal izango ditu, eta prozeduraren eskaintza jaso. Gainera, posizioak absolbitu ahal izango ditu, eta judizioetan aitortu; judizio zibiletan agertu lan-arloko epaitegien aurrean, eta baita haien epaien aurkako errekursoetan ere. Espediente administratiboak sustatu ahal izango ditu edozein jurisdikzioren aurrean, eta erreklamazio ekonomiko-administratiboak eta administrazioarekiko auziak sustatu, eta, halaber, erreserbarik eta mugarik gabe, mota orotako espediente, judizio, prozesu eta kausetan esku hartu edozein administrazio edo jurisdikzioren aurrean.

- r) Lehen esandako ahalmenak erabiliz ahalak emateko ahalmena, bereziki i), j), k), l), m) eta p) ataletan aipatutako kasuetarako, eta horiek baliogabetzeko ahalmena ere bai; eta ahal horren kopiak ere eskatu ahal izango ditu.

- s) Eta beharrezkoak izan litezkeen dokumentu publiko eta pribatu guztiak egiteko eta sinatzeko ahalmena, baita zuzentzekoak ere, eta osagarriak ere bai, beharrezkoak badira.

16. artikulua.-Kide anitzeko organoa izango da Patronatua, eta, gutxienez, hiru (3) kidek eta, gehienez, hogeita bostek (25) osatuko dute.

Hasiera batean, erakunde sortzaileek izendatutako pertsonak osatuko dute Patronatua.

Sortze-egintzaren ondoren, Patronatuak berak erabakiko du zenbat kide izango diren Patronatuan, estatutuek ezarritako mugen barruan, eta, halaber, Patronatuak berak izendatuko ditu kargua bete behar duten pertsonak, hutsak edo berritzeak ere erabakiz. Nolanahi ere, honako hauek agertu beharko dira osieran:

- Irungo alkatea.
- Merkataritzaren gaian eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako saila ordezkatu duen kide bat.
- Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatu duen kide bat.
- Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera Ofiziala ordezkatu duen kide bat.

Honako hauek ere bertako kideak izango dira:

- Donostiako Udaleko ordezkari bat.
- Ekonomiaren eta merkataritzaren gaian eskumenak dituen Irungo Udaleko zinegotzi bat.
- Azpiegituren gaian eskumenak dituen Irungo Udaleko zinegotzi bat.
- Bidasoa-Txingudi Mugaz gaindiko Partzuergoko ordezkari bat.
- Recinto Ferial del Bidasoa-Bidasoko Erakustazoka, SAko ordezkari bat.
- Agencia de Desarrollo del Bidasoa - Bidasoko Garapen Ajentzia, SAko ordezkari bat.

Lehen esandako Irungo Udaleko, Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberako ordezkariari patronatuko kide izaera ematea, petsona horiek organo horretako kide izateko interesaz gainera, Merkataritza Jarduera arautzen duen 1994ko maiatzaren 27ko Euskal Legeko 35. artikuluko 2 zenbakian xedatutakoa betez egiaztatzen da.

Horren gehigarri, nolana ere, Patronatuko kide izatera gonbidatuko dira hauek:

- Euskadi Baionako Merkataritza eta Industria Ganbera ordezkatu duen kide bat.
- Communauté de l'Agglomération Biarritz Anglet Bayonne ordezkatu duen kide bat.

Azkenik, Patronatuko kide izan ahalko da bere xedea eta helburua lortzen Fundazioari lagundu diezaiokeen edozein pertsona fisiko edo juridiko, haren naziotasuna edozein delarik ere.

17. artikulua.-1.- Patronatuko kide diren pertsona juridikoak pertsona fisiko batek ordezkatu beharko ditu bertan.

2.- Patronatuko kide-kargua kargu publiko edo pribatu baten titularra delako ematen denean, horrek pertsona bat izendatu ahal izango du, bere izenean bete dezan.

3.- Patronatuko kide-kargua kargu publiko edo pribatu baten titularra delako betetzen duenak, kargu horren titulartasuna uzten duenean, Patronatuko kide izateari ere utziko dio.

4.- Aurreko ataletan aipatutako hiru kasuetan, izendatzeko eta uzteko betekizun bakarria izango da, Fundazioari dagokionez, horren berri ematea Fundazioari.

5.- Patronatuak libreki erabaki ahal izango du, aurretik interesdunari entzunaldia emanda, patronatuko edozein kide enkaitzea 12/94 Legeko 13. artikuluan zehazten diren betebeharrak betetzen ez dituelako, Fundazioaren lanetan edo Patronatuaren zereginetan kolaboratzen ez duelako edo jasotzen dituen enkarguak arduraz betetzen ez dituelako. Enkaitze-espeditentea egin zaion patronatuko kidea ezingo da joan Patronatuko bileretara, erabaki bat hartu behar denean.

18. artikulua.-16. artikuluaaren arabera nahitaez Patronatuko kide izan behar dutenak iraupen-mugarik gabe izango dira patronatuko kide.

Patronatuko gainerako kideak ere mugagabeak izango dira, salbu eta Patronatu osoko bilkurak bestelako erabakiren bat hartzen ez bada gehiengoaz.

Artikulu honetan aurreikusten dena ez zaie aplikatuko entitate sortzaileek sortze-egintzan izendatzen dituzten Patronatuko kideei. Kasu horretan, sei hilabete iraungo dute karguek, eta une horretan, berritu egingo da Patronatu guztia.

19. artikulua.-Patronatuko presidentea beti izango da Irungo Udaleko ordezkarietako bat. Bere kideen artean hautatuko du Patronatuak presidenteordea, idazkaria eta idazkariordea. Idazkaria izan ahalko da Patronatuko kidea ez den beste bat. Pertsona fisikoek beteko dituzte kargu guztiak.

20. artikulua.-Patronatuko presidentea ordezkatu du Patronatua; berak deituko ditu bilerak, eta haietako buru izango da eta eztabaidak zuzenduko ditu; kalitate-botoa izango du, eta hartzen diren erabakiak betearaziko ditu, salbu eta haietan azken eginkizun horretarako beste pertsona bat izendatzen ez bada. Idatziz eta aztergaiak

adieraziz gutxienez bi kidek hala eskatzen dioten guztietan deituko ditu bilerak. Bi kide horien artean antzinasun handiena duenak edo, antzinasun bera baldin badute, zaharrenak presidentearen ordezkari izango du dagokion deia, hamabost egun igarota presidenteak deitzen ez badu.

21. artikulua.-Presidenteordeari egokituko zaio presidentea behin-behinean ordezkari eta haren eskumenak betetzea, kargua hutsik baldin badago, edo presidentea ez badago edo ezin badu. Supostu beretan, presidenteordea antzinasun handiena duen patronatuko kideak ordezkari izango du, edo antzinasun bera izanik, zaharrenak.

22. artikulua.-1.- Idazkariak bere kargura edukiko ditu administrazio-zerbitzuak eta dokumentu-artxiboa, eta bere sinadurarekin bermatuko du akten eta baimentzen dituen ziurtagirien benetakotasuna.

2.- Idazkariaren kargua hutsik badago, edo bertan ez badago edo ezin badu, idazkariordeak ordezkari izango du behin-behinean, eta horrek ere ezin badu, antzinasun gutxiena duen patronatuko kideak edo, antzinasun bera izanik, kide gazteenak.

23. artikulua.-Patronatuaren bileretako aktak eta, oro har, Idazkariak bere sinaduraz babesten duen dokumentazio oro presidenteak edo, hala badagokio, ordezkari duenak ontzat eman behar du.

24. artikulua.-Patronatua, ohiz, apirilean eta abenduan bilduko da urtero, eta izaera bereziaz, egokituz jotzen denean.

25. artikulua.-Deiak idatziz egingo dira, zer gai aztertuko diren adieraziz eta, gutxienez, bost egun aurretik. Gainera, bigarren deia ere inplizituki egingo da lehenengotik ordu erdi barru egiteko.

26. artikulua.-Patronatua lehenengo aldiaren baliozkotasunez eratuta geratu dadin, nahiz ohizko izaeraz nahiz izaera bereziaz, patronatuko kideen gehiengoak behar du. Bigarren deialdian, berriz, baliozkoa izango da, bilerara bertaratu diren patronatuko kide-kopurua edozein delarik ere.

27. artikulua.-Patronatua baliozkotasunez eratutzat emango da, baldin eta patronatuko kide diren guztiak biltzen badira eta aho batez erabakitzen badute bilkura egitea.

28. artikulua.-Patronatuaren erabakiak berehala izango dira betetzekoak, eta bertaratuak patronatuko kideen gehiengoaren botoez hartuko dira, honako hauek salbu: Estatutuak aldatzea; haiek interpretatzea eta garatzea; fundazioaren ondasuna besterentzea eta zergapetzea; eta entitatea aldatzea, fusionatzea, iraungitzea eta likidatzea. Erabaki horietarako, patronatuko kide-kopuruaren bi herenen aldeko botoa beharko da.

29. artikulua.-Patronatuko kideek dohainik beteko dute beren kargua. Hala ere, beren funtzioak betetzeagatik sortzen zaizkien gastuak ordaindu ahal izango zaizkie, betiere behar bezala justifikatuta.

30. artikulua.-Patronatuak ahalmena izango du bere barruan eskuordeko batzorde bat edo batzuk sortzeko, eta kargu horiek zeintzuk bete behar dituzten eta nola jardun behar duten ere erabaki beharko du. Haiei ahalmenak eskuordetu ahal izango dizkie, guztiz edo partzialki, aldi baterako edo iraunkortasunez, Legeak edo Estatutu hauek ametitzen duten neurrian.

31. artikulua.- Patronatuak Fundazioko Batzorde Betearazle bat izendatuko du, gehienez ere 14 kidek osatua. Kide horiek, batik bat, Fundazioaren jarduera-esparruan jarduera tekniko-merkataritzakoetan jarduten dutenak eta Patronatuan ordezkatuta dauden instituzio eta erakundeetakoak izango dira. Kide horiez gainera, Fundazioaren jarduerak garatzeko interesatuta dauden beste instituzio, erakunde eta enpresa batzuetakoak ere kide izan daitezke, betiere ezaugarri berezi berdin horiek dituztenak.

Batzorde horrek beti jardungo du Patronatuak, edo, bestela, aurreko artikulua aipatzen duen eskuordeko batzordeek ikuskatuta, eta hori 15. artikuluko c) atalean aurreikusitakoarekin bat etorritik. Horrela, Patronatuari zuzenean emango zaio batzorde beterearazlearen jardunaren berri –beste instituzio paralelo batzuetan erabilitako irizpide orokorrekin bat etorritik– instituzioaren organo gorena den aldetik.

32. artikulua.-Ekitaldi ekonomikoa urtekoa izango da; urte naturala hain zuzen.

Fundazioak ohizko aurrekontu bat egingo du ekitaldi ekonomiko bakoitzerako, eta bertan, orekaz jasoko dira diru-sarrerak eta gastuak. Aurrekontu hori Babesletzaren aurrean aurkeztuko da onetsi behar diren urteko azken hiruhilekoan, eta aurrekontuarekin batera, azalpen-memoria ere aurkeztu beharko da.

Patronatuak egingo du inbentarioa, egoeraren balantzea eta emaitzen kontua, eta haietan islatuko du Fundazioaren ondare-egoera eta egoera ekonomiko eta finantzarioa,

eta urte osoan egindako jardueren memoria ere jasoko da, eta baita ondarearen kudeaketa ekonomikoarena ere, Fundazioaren helburua betetzen dela jakiteko eta justifikatzeko adinakoa. Era berean, aurreko urteko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontuaren likidazioa ere egingo du, betiere horretarako legearen xedapenak betez.

Urte bakoitzeko lehenengo sei hilabeteetan, Patronatuak justifikatu egin beharko du Babesletzaren aurrean, Fundazioei buruzko Legeko 27. artikuluan aurreikusten diren terminoetan, bere kudeaketa egokia izan dela Fundazioaren helburuei begira.

IV. KAPITULUA.- KOLABORATZAILEEN ARAUBIDE

33. artikulua.- Ekarpen ekonomikoak eginez Fundazioa garatzen laguntzen duten entitate publikoak eta pribatuak izango dira Fundazioaren kolaboratzaileak.

Hori izateko, Patronatuak eman beharko die izaera hori entitate publiko eta pribatuei, betiere aurretik finkatu dituen irizpide eta baldintza orokorren arabera.

Izena emandako eta baja emandako kolaboratzaileen liburua edo zerrenda izango du Patronatuak.

Kolaboratzaileek eskubidea izango dute Fundazioak bere jardueretan haiek parte hartzen dutela hedatu dezan.

Patronatuak ohorezko kolaboratzaile izendatu ahal izango ditu Fundazioaren xedea lortzen nabarmen lagundu edo laguntzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

V. KAPITULUA.- LIKIDAZIOA

34. artikulua.- Hala badagokio, Fundazioa likidatzetik sortzen diren ondasun eta eskubideak Patronatuak berak aukeratzen duen irabazi asmorik gabeko entitate bati emango zaizkio, Fundazioaren antzeko helburuetarako aplikatu ditzan.

IV. KAPITULUA.- ARAUDI OSAGARRIA

35. artikulua.- Fundazioaren barne-araudiari dagokionez, Estatutu hauetako arauak zehaztu eta garatzeko araudia edo araudiak edo idatziko ditu Patronatuak.
